

Lehenik gizakia, gero tresna

Artisaua, bere lanean, ez da inprobisazio arduragabe eta arin edo txolinaren menpe jartzen, bere zeregina ez du betetzen unean unekoa moldatzeko xedez.

Sarritan, bere arbasoengandik jasotako lan-tresnez baliatuz, ofiziorako duen trebetasuna probatzen du. Eskulangile saiatuak esku artean duen egitekoaren xehetasun txikiak ere lantzen eta zaintzen ditu. Denborak ez du garrantzirik harentzat; lana mimatu egiten du, harekin bat eginez.

Nire ustez eskulangintza nagusiki eskuz burutzen den lana edo produktioa da; zeregin horretan lantresnak bigarren mailako tokia betetzen du gizakiaren ondoren. Puntu honetan egokia iruditzen zait esparru honetan balio orokorra izan dezaketen iritzi batzuk adieraztea. Aintzat hartu behar da gizakiak, premia berberen aurrean, bere ahalmenen barruan, modu berean edo antzera erantzuten duela, bere zerbitzura oso antzekoak diren baliabideak jartzen dituela alegia. Honekin adierazi nahi dut eskulana, euskal eskulangintzat hartzen denaren zati handi bat, gurea izan daitekeela; baina ez gurea bakar-bakarrik. Hemen esandakoa kontuan hartu behar da, baina nolabait erraz ahazten dugula ikusten dut.



Primero el hombre, luego el útil = Lehenik gizakia, gero tresna / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Artesanos guipuzcoanos = Gipuzkoar artisauak*. - Donostia : Cámara de Comercio Industria y Navegación de Guipúzcoa, 2000. - 186 p. : il. ; 30 cm. - P. [19]. - OC. T. 9, p. 295-296